



El Drogas.

Hamairu euskal ekoizpen bilduko ditu Zinemira sailak

IRENE ELORZA

Askotariko 21 euskal ekoizpen izango dira ikusgai Donostiako 68. Zinemaldian, jaialdiko hainbat sailetan banatuta. *Nora* filmak inauguratuko du euskal ekoizpenei eskainitako Zinemira saila. Lara Izagirrearen bigarren lan luzearekin batera, beste euskarazko hiru fikziozko lan izango dira ikusgai jaialdian: Zuzendari Berriak atalean, *Ane* (David Perez Sañudo)

eta *Hil Kanpaiak* (Imanol Rayo) filmak; eta Zinemiran, Eugene Greenen *Atarrabi et Mikelats*. Lau lan horiez gain, beste bederatzitan ariko dira Euskal Zinemaren Irizar Saria lortzeko lehian.

David Gonzalez Rudiezek *Talento* bere laugarren lan luzea ekarriko du Zinemirara. *Asier eta Biok* idatzi eta zuzendu zuen Amaia Merinok *Non dago Mikel?* aurkeztuko du, Miguel Angel Llamasekin batera zuzendutako dokumentala. *Caminho Longe*

ere bi zuzendarien elkarlanaren emaitza da, Josu Martinezena eta Txaber Larreategirena, hain zuzen.

Ekain Irigoienek *Hijos de Dios* filma aurkeztuko du Zinemaldian. Madrilgo kaleetan bizi diren etxe gabeko bi pertsonen istorioa kontatzen du. Bestalde, Natxo Leuzak Enrique Villareal *El Drogas* musikariaren inguruko dokumentala aurkeztuko du. Zinemaldiko aspaldiko ezaguna den Telmo Esnaiek, berriz, *Urtzen*

entsegu dokumentala estreinatuko du. Gainera, Pepe Andreuk eta Rafael Molesek 2018an Lau Haizeetara Dokumentalen Koprodukzio Foroan izandako proiektua aurkeztuko dute: *Lobster Soup*.

Olmo Figueredoren *El estado contra Pablo Ibar* telesail dokumentala eta Aitziber Olaskoagaren *Jo ta ke* film ertaina Zinemira sailean baina lehia-ketatik kanpo erakutsiko dira.

Beste sailetan ere

Bestelako ekoizpen batzuk ere izango dira ikusgai Zinemaldiko hainbat atalean. Zuzendari Berriak saileko bitan gain, Sail Ofizialean, Pablo Agueroren *Akelarre* emango dute; Asier Altunaren *ARZAK Since 1897* dokumentala, aldiz, Culinary Zineman.

Zabaltegi-Tabakalera bi euskal ekoizpen erakutsiko dituzte: Laida Lertxundiren *Autoficción* eta Marina Palaciosen *Ya no duermo* film laburrak. Made in Spain sailean, berriz, Paula Cons Varelaren *La isla de las mentiras* ikusiko da.

Arantza Santestebanek ekoizpen fasean dagoen *918 gau* proiektua –Ikusmira Berriak egitarauaren barruan sortutakoa– aurkeztuko du jaialdiko WIP Europa atalean.

Azkenik, Euskal Zinemaren Gala irailaren 22an egingo da, Victoria Eugenia antzokian. Irailaren 23an, aldiz, David Perez Sañudok zuzendutako *Alardea* telesailaren estreinaldia izango da EITB Galan.



Sara Bilbatuak jasoko du Zinemira Saria

Sara Bilbatua (Eibar, 1958) casting zuzendariak jasoko du aurten Zinemira saria. Euskal Zinemaren Galan jasoko du saria, irailaren 22an, Victoria Eugenia antzokian. Gala horretan, *Bizimina* film laburra aurkeztuko da.

Psikologian lizentziatu ondoren, Bilbatuak arte dramatiko ikasketak egin zituen. 1994an egin zuen lehen lana casting zuzendari gisa, *Justino, un asesino de la tercera edad* filmean. Orduetik, ikus-entzunezko 75 ekoizpenetan baino gehiagotan izan da casting arduradun; besteak beste, Almodovar, Barroso, Calparsoro, Coixet, Medem, eta Vermut zuzendariekin egin du lan. Telebistarako proiektu ugari ere hartu du parte Tanami Casting izeneko bere agentziaren bitartez. 2004an *El aire que respiro* idatzi eta zuzendu zuen.

NORA

Barneko iparrorratzak ez du hutsik egiten

I.E.

Nora filmaren estreinaldiak abiatuko du, gaur, Zinemira saila. Lara Izagirrearen bigarren lan luzea Donostia Zinemaldiko Koprodukzio Fororako hautatua izan zen 2018an eta bi urte beranduago aurkeztuko da jaialdiaren baitan. “Pixka bat urduri nago baina ilusio handiarekin”, aitortu du Izagirrek, “urte nahasia, desberdina eta arraroa izaten ari da denontzat eta hau urteko oparia da; filma Zinemaldian erakustek urduri eta zorionsu egiten nau”.

Aitona galdu ostean, neska batek bere buruaren bila egingo duen bidaia kontatzen du filmak. Komedia eta dramaren artean mugitzen da road-trip gazi-goza. “Komedia handiago bat izango zela uste nuen baina nik, nire lan egiteko moduagatik, tonua neurtzen joan nintzen”, adierazi du Izagirrek, “gidoiak bazuen tonu berezi hori islatzea lortu dugu modu natural batean, bai grabazioan baita muntaketan ere”. Itxuraz noraezean dabilen Nora protagonistak existentzia-krisi batean murgilduta dago. Galdera

potolo bat dauka filmak atzetik: benetan galdetu al diozu zure buruari zer izan nahi duzun eta zer egin nahi duzun? “Norarengandik gustatzen zaidana da ez dela ez oso ausarta ez oso beldurtia, arrunta dela eta bere buruari aukera ematen diola” azaldu du zinemagileak.

Nora filmak bere aurreneko lanarekin baduela harremana aitortzen du zinemagileak: “Neba-arrebak bezalakoak dira biak, baina oso ezberdinak dira; *Un otoño sin Berlín* (2015) oso udazkenekoa zen, barru-



ra begiratzen zuena, apur bat tristea; *Nora*, berriz, arinagoa, alaiagoa, bisualki ederragoa da ia osorik kanpoan errodututa dagoelako”. Bizitzako momentu jakin batzuen isla dira biak ala biak, zinemagile bizkaitarren aburuz.

Aktoreen lan sendoa

Aktoreekin lan egiteko modu pertsonala du Izagirrek. Entsegu asko, inprobisazio saioak eta eszenak deseraikitze ariketa ugari egiten ditu. “Ane Pikazak eta gainontzeko aktore guztiek sekulako paperak sortu dituzte”, adierazi du zinemagileak. “Konturatu naiz sekulako aktoreak daudela Euskal Herrian, euskaraz egiten dutenak gainera. Oso pozik nago denekin, oso polita izan da oso eskuzabalak izan direlako”, dio.

zero,99
#dopplerparaguasdecine

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
Colaborador

doppler